

AIARAKO UDALAK 2014ko ABENDUAREN 18an EGINIKO
OHIKO BILERAREN AKTA.

UDALBURUA

Josu Artetxe

ZINEGOTZIAK

Lauren Uria

Esteban Hernando

Aitziber Alava

Garbiñe Alaña

Julio Etxaurren

Esmeralda Martínez

José Antonio Bartolomé

Iratxe Parro

Iraida Saenz de Lafuente

José Luis Pedruzo

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamalauko abenduaren hamazortzian, hemeretziak direnean, Udaltzara Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Josu Artetxe Arana alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

Jarraian, Eguneko Aztergaien Zerrendan dauden gaiak jorratu dira.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak arratsalde on esan eta Udaltzara ongi etorria eman die guztiei.

Ondoren, Eguneko Aztergaien Zerrendan gaineratutako puntuak jorratu dira.

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2014ko azaroaren 17an eginiko ezohiko eta premiazko osoko bilkuraren akta.

Ez da gaiari buruzko ezer esan, bozketa egin da eta aho batez onetsi da.

2.- Onestea, bidezkoa bada, 2014ko azaroaren 20an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Inork ez du ezer esan eta akta aho batez onetsi da.

3.- Ander Vergara Gochi jauna (EAJ/PNV) Udaleko zinegotzi-karguaz jabetzea.

Josu jaunak (BILDU) esan du Ander Vergara jauna zinegotzi-karguaz jabetzeak formalismoa eskatzen duela, eta galdera hau egin dio:

“Zin egiten edo agintzen duzu, zure kontzientziaren eta ohorearen izenean, fideltasunez beteko dituzula zinegotzi-karguaren betebeharrak, Konstituzioa betez eta betearaziz, funtsezko arau gisa?”.

Ander Vergara jaunak (EAJ) erantzun du: “Bai, hitzematzen dut”.

Horren ondoren, Ander Vergara Gochi jauna Aiarako Udaleko zinegotzi-karguaz jabetu da. Euzko Alderdi Jeltzaleko kidea da, eta hemendik aurrera zinegotzi hautetsi gisa ari daiteke.

4.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Etxaurren ikastolako Gurasoen Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena.

Ez da besterik aipatu, eta udaltzako kideek aho batez onetsi dute gaia.

IKUSI DA.- Etxaurren IGE deituriko elkartearen eta kirolaren arloko eginkizun garrantzitsua gauzatzen ari da, udalerrian kultura- eta kirol-jarduera asko sortzen baitu; zehazki,

haurren artean. Arte- eta kirol-jarduera sustatzen du haurren artean, ikastetxeko ohiko jardueraren osagarri.

IKUSI DA.- Udalak interes berezia du eskolaz kanpoko ordutegian jarduerak (eskolaz kanpoko jarduerak deiturikoak) egiten jarraitzeko eta horiek sustatzeko.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Etxaurren ikastolako ikasleen guraso-elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, eskolaz kanpoko jarduerari dagokien diru-laguntza ordaintzeko.

AINTZAT HARTU DA.- Gizarte Ongizatea, Berdintasuna, Immigrazioa eta Funtzio Publikoa eta Langileak Informazio Batzordearen aldeko irizpena, 2014ko abenduaren 9koa.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Etxaurren ikastolako ikasleen guraso-elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, eskolaz kanpoko jarduerari dagokien diru-laguntza ordaintzeko.

Bigarrena.- Aiarako Udaleko alkateari eskumena ematea, aipatu hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Etxaurren ikastolako IGEari, eta hitzarmenaren bi kopia eranstea, horietako bat behar bezala sinatuta itzul dezan.

5.- Ez onartzea, bidezkoa bada, Fundación Benéfica Alday aurkeztutako ondare-erantzukizuneko eskaera.

Josu jaunak (BILDU) esan du gai hori zegokion batzordearen bilkuran landu zela jada.

José Luis jaunak (PP) esan du hau jada aipatu zela: espedientean begiratu beharrekoa zen ea izapidetzean jabetzaren erregistroari galdetu ote zitzaion.

Josu jaunak adierazi du Alday fundazioaren aldarrikapenen aurkako epai judizialak egon direla, Udalari eman diotela arrazoia, eta Udalak jarraitutako prozedura egokia izan zela erakutsi dutela. Ez dago gaiari buruz eztabaidatzerik; horregatik, Josu jaunak uste du ez onartzea dela bidezkoa. Izan ere, epai judizial batetik eratorritako errealitate juridikoa dago, gaitzetsi egiten dituen fundazioaren asmoak.

Inork ez du horri buruzko ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 8 (4 BILDU, 4 EAJ)

ABSTENTZIOAK: 3 (2 AB, 1 PP)

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- Fundación Benéfica Alday aurkeztutako kalte-galeren erreklamazioa, 2014ko azaroaren 8koa, lursaila eta hirigintza-aprobetxamendua galdu omen duelako, Arespalditzako 3. sektorean bereak direla dioen lursail batzuetan.

OINARRIAN DAGO.- Erreklamazioan azaltzen da Udalak behin betiko onetsi zuela 3. sektorea birpartzelatzea, fundazioak berea dela dioen lursail bat okupatuz. Bestalde, gehitu du inork

ez zituela aintzat hartu A-624 errepidea Arespalditza parean handitzeko desjabetze-prozeduran; izan ere, lursailaren erabilera udal-erabilera publikotzat jo zen.

OINARRIAN DAGO.- Alegatu da lursail hori okupatzeak eta aprobetxamendua galtzeak kaltea eragin duela; zehazki, Udalak onetsitako birpartzelatzeak eragin du. Ondare-erantzukizuna eskatu du, esparru horretan dagoen edo birpartzelatzeari dagokion aprobetxamenduan lurzorua galdu duelako. Galera Udalari egotz dakiokeela uste du; izan ere, bere ustez, fundazioak parte hartu behar zuen, esparru horretako lurzorua jabe gisa. Halaber, esan du zegokion epearen barruan aurkeztu dela; izan ere, birpartzelatzearen aurka egiteko epaia 2014ko uztailaren 16ko irrimo.

OINARRIAN DAGO.- Arespalditzako 3. sektorea birpartzelatzeko proiektua. Jendurrean ikusgai jarri ondoren, 2007ko maiatzaren 17ko osoko bilkuran onetsi zen behin betiko, uztailaren 16ko 85/2007 ALHAOn argitaratu zen, eta Fundación Benéfica Alday erakundeari 2007ko irailaren 28ko Dekretuaren bidez jakinarazi zitzaion. Beraz, 2007an bihurtu zen irrimo.

OINARRIAN DAGO.- Hori aitortzen dute Administrazioarekiko Auzietarako Vitoria/Gasteizko 1. Epaitegiaren 2012/06/30eko epaiak eta Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2014/07/16ko epaiak. Azken horren bidez ezetsi zen Fundación Alday erakundeak lehenengo epaiaren aurka aurkeztutako apelazio-errekurtsoa. Halaber, azken horrek baieztatzen du zuzenbidearekin bat egiten dutela jabe bakar gisa egindako birpartzelatze-proiektuaren izapideak eta 2011/02/09ko ebazpen aurkaratuak. Ebazpen horrek ezetsi egin zuen osoko bilkuraren erabakiaren (behin betiko onetsi zuen birpartzelatze-proiektua) aurka Fundación Alday erakundeak aurkeztutako berrezartze-errekurtsoa.

EAEANaren epaiak hau adierazten du zuzenbidearen bigarren oinarrian: “errekurtsoa aurkeztu duen alderdiak jakin zuen arren ekimen partikularreko alorreko plana izapidetzen ari zela eta Arespalditzako 3. sektorea erregistro-finka bakar batek (9298 zenbakikoak) osatzen zuela ulertuko zela, ez zen horren aurka agertu 2007ko irailaren 7ra arte. Alabaina, Fundación Alday erakundeak BParen hasiera bateko onespeneren berri izan zezakeen (ALHAOn argitaratu zen), baita behin betiko onespenera ere (hori ere ALHAOn argitaratu zen), eta berrezartze-errekurtsoa aurkezteko aukera izan zuen, bidezkotzat joz gero; baina, ez zuen halakorik egin...”; “ez zegoen jabeak emandako erregistro-titulutik eratorritako daturik, Fundación Alday erakundeak interesduntzat jo behar zela adierazten zuenik. Egoera bestelakoa izango litzateke, Fundación Alday erakundeak espedientean bertaratu izan balitz, hasiera batean onetsi ondoren, titulartasunen arteko gatazka sustatzeko; baina, ez zuen halakorik egin”. “Hori dela eta, ondorioztatu behar dugu ezin eska zitekeela Birpartzelatze Proiektuak Fundación Alday erakundeak interesduntzat jotzea, beraz, ezta aurrez aurreko jakinarazpena egin behar izatea ere...”; “BParen esparruan, eta esan dugun bezala, ez denez jaso 9298 finkaren deskribapena eta Sektorearen esparrua bat ez zetozela, Fundación Alday erakundeak aurka bazegoen, prozeduran aurkeztu behar zuen bere burua, zegokion erregistroko titulua erakutsiz, egokituz joz gero, bere asmoari eusteko. Halaber, bere titulartasuneko delakoa katastroko partzelaren titulartasuna zalantzazkotzat jotzekoa zela adierazi behar zuen. Alabaina, ez zegoen datu nahikorik, interesduntzat jo behar zela eta BParen hasiera bateko eta behin betiko onespenera aurrez aurre jakinarazi behar zitzaizkion ondorioztatzeko, berak dioen bezala”. “Hori dela eta, bidezkoa da aztergai dugun epaia mantentzea; izan ere, behin betiko onspen-ebazpenaren aurkako berrezartze-errekurtsoa denboraz kanpo artikulatu da, eta horrek apelazio-errekurtsoa ezestea ekarri behar du”.

GINARRIAN DAGO.- HAAJ-APEari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 142.5 artikulua eta martxoaren 26ko 429/1993 EDren 4. artikulua xedatzen dute, kasu orotan, erreklamatzeko eskubidea urtebetean iraungitzen dela, kalte-ordaina eragiten duen gertakizuna edo egintza gertatzen denetik, edo kaltea adierazten denetik aurrera zenbatuta. Beraz, alegatu duen bezala, ustezko kaltearen erantzukizun-erreklamazioa Arespalditzako 3. sektorea birpartzelatzeko proiektua behin betiko onestearen ondorioz aurkeztu bazuen, aintzat hartu behar da 2007an onetsi zela behin betiko, eta ez EAEANaren 2014ko uztailako epaiaren irmotasunarekin (eta berretsi egiten dugu ez duela gaitzesten denboraz eta formaz birpartzelatze-proiektuaren aurka aurkeztutako errekurtoa): bertan dioenez, zuzenbidearekin bat dator Udalbatza Osoaren 2011ko otsailko ebazpena, ezetsi egin zuena berrezartze-errekurtoa, aurkeztu ere denboraz kanpo egin zena.

GINARRIAN DAGO.- Beraz, erreklamazioa denboraz kanpo aurkeztea da ezesteko arrazoia, legerian aurreikusitako urtebeteko epea igaro delako, birpartzelatze-proiektu batetik eratorritako edozein ondare-erantzukizun erreklamatzeko. Ebazpena 2007an behin betikotu zen, eta urte horretan bertan jarri zen errekurtsogilearen eskura.

GINARRIAN DAGO.- Aurrekoan eragin gabe, ez dira inola ere betetzen HAAJ-APEari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 141.1 artikuluan ezarritako lege-betekizunak, martxoaren 26ko 429/1993 EDren 5. artikuluan ezarritakoak eta jurisprudentzian ezarritakoak. Horien artean, nabarmentzekoa da Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren 415/2009 epaia, ekainaren 1ekoa. Izan ere:

a. Ez da egiaztatu emaitza kaltegarri bat gertatu denik, ezta kaltea efektiboa, ekonomikoki ebaluagarria eta banakatua denik ere, pertsona bati edo pertsona talde bati dagokienez.

b. EAEANaren epai transkribatuan aitortzen den bezala, gehienez ere esan daiteke zalantzarik titulartasun batez ari garela, baina Fundación Alday erakundeak ez du oraindik ere egiaztatu 3. sektoreko lursailen jabea denik. Izan ere, nahiz eta egia izan mugatze-epaiketa arrunta abiarazi zuela eta aldarrikapena egin zuela jabe bakar gisa aurkeztutako birpartzelatze-proiektuko sustatzailearen aurrean (1. Instantziako eta Instrukzioko Amurrioko 1. epaitegian izapidetu zen, 301/2008 prozedura arrunt gisa), gerora bertan behera utzi zuen.

c. Bestalde, egia den arren gerora aldarrikatzeko eta kalte-ordainak eskatzeko egintza berri bat egin duela sustatzailearen eta Udalaren aurrean, lehenengo eta bigarren instantzian ezetsi da (59/2014 Autoa, 2014/05/20koa, Arabako Lurralde Auzitegiarena); beraz, adierazi den bezala, oraindik ere ez da titulartasuna egiaztatu eta ustez bere jabetzakoa den lursailaren mugaketa, 3. sektorean, jabetza-azuei buruz hitz egiteko eskumena duten epaimahai zibilen aurrean.

d. Ez da egiaztatu zerbitzu publikoaren ohiko edo ezohiko funtzionamenduak eragindako kalterik, kalte-ordain ekonomikoak eragiten dituenik, ezta kaltearen judizioz kanpokotasuna edo Aiarako Udalarari egotzeko aukera ere.

e. Beraz, zaila da inolako kalte-ordainik eman behar izatea, udal-administrazioaren jardura dela eta, 3. sektorea birpartzelatzeko proiektua

onestean. Izan ere, Administrazioarekiko Auzietarako Gasteizko 1. Epaitegiak eta EAEANek baieztatu dute jarduera hori egokia eta zuzenbidearen arabera izan zela. Beste alde batetik, A-624 errepidea Arespalditza parean handitzeko desjabetze-prozedura Arabako Foru Aldundiak izapidetu du, ez Udal honek.

f. Ez da bete eskubidea denbora-tarte jakin batean aurkezteko betekizuna; zehazki, gehienez ere urtebeteko epean aurkeztu behar da, erantzukizuna eragin duen egintza gertatu denetik aurrera zenbatuta.

OINARRIAN DAGO.- Ez direnez bete indarrean dagoen araudiak eta jurisprudentziak ezarritako betekizunak, gauzatzen den jarduera bideragarria izateko; egintza epez kanpokoa denez; ez denez egiaztatu (ezta zantzuen bidez ere) emaitza kaltegarria, efektiboa eta ekonomikoki ebaluagarria benetan gertatu dela; eta urtebete igaro denez erreklamatzeko den erantzukizuna eragin zuen egintzatik, bidezkoa da ezestea.

AINZAT HARTU DA.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legean xedatutakoa, eta Ondare Erantzukizuneko Prozeduren Araudia onesten duen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuan ezarritakoa.

Udalbatza osoak, 2014ko abenduaren 18an egindako osoko bilkuran, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Ezestea Fundación Benéfica Alday erakundeak 2014ko azaroaren 8an aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioa, denboraz kanpo aurkeztu zuelako eta, gainera, ez direlako betetzen erreklamaziogileari kalte-ordain ekonomikoa aitortzeko lege-betekizunak.

Bigarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea interesdunari. Azaldu egingo zaio honen aurka hautazko berrezartze-helegitea aurkeztu ahal izango duela, hilabeteko epean, udalbatza honen aurrean jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango du, zuzenean, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzietarako Vitoria/Gasteizko epaitegietan.

➤ **Eguneko Aztergaien Zerrendako hurrengo puntuarekin jarraitu baino lehen, alkate jaunak puntu berri bat premiaz gehitzea proposatu du. Nerbioi Goieneko saneamenduari buruzkoa da.**

Josu jaunak (BILDU) premia justifikatu du. Esan du prentsan agertu direla proiektu hau gauzatu ezean ager daitezkeen arazoak; beraz, uste du komeni dela gaia lantzea. Mozioa irakurri du:

“Nerbioi Goieneko saneamenduak ardura eragiten du Aiaraldean, eta saneamendua bete beharra Europako agindu batetik dator, zuzenean. Gure eskualdearen zatirik handiena eremu geografiko horretan dago: 339,13 km²-z eta 34.548 biztanlez ari gara.

Urari dagokionez, asko dira Aiara beharriak; funtsean, honako hauek: Aiaraaldeko Horniduraren Plan Zuzendaria, Arrastariako hornidura, Artziniegako hornidura-sarea berritzea, Artziniegako saneamendurako konponbidea eta Aiara eskualdeko gainerako saneamendua. Azken horrek barne hartzen du Izoria, Arespalditza eta abarretik letorkeen ura Markixanako EDAREan biltzeko proiektuaren bigarren fasea. Horrez gain, beharrezkoa da, halaber, Aiara udalerriko gainerako isurialdeen planifikazioa egitea.

Nerbioi Goieneko saneamendua interes orokorreko obratzat jo zenetik hogeit hamar urte igaro dira. 2014aren amaieran gaude: oraindik ez dira lanak hasi eta egoera bizi duten Aiaraldea eskualdeko udalerriek hondakin-urak Nerbioi ibaira isurtzen jarraitzen dute.

Europako araudia betetzeko eta Europar Batasunak ezar ditzakeen zigorrak kontuan hartuta, premiazkoa da lanak hastea.

BILDU udal-taldeak honako mozio hau aurkeztu du, Udalbatza Osoak eztabaidatu eta onar dezan:

PREMIAZKO MOZIOA:

1.- Aiarako Udalak premiaz eskatzen dio Arabako Foru Aldundiari, azken horri dagokion eskumenen arabera, Aiara eskualdeak ur-horniduran dituen arazoei behingoan heltzeko. Horretarako, ondoko puntu hauek bete beharko dira bost urteren buruan, modu ordenatuan eta pausoz pauso:

A.- URA-Uraren Euskal Agentziarekin ados jartzea eta dagokion esparru-hitzarmena sinatzea, Aiarako Plan Zuzendarian jasotako azpiegituren finantzazioa bermatzeko. Izan ere, ez dago, horiek gabe, edateko uraren hornidura bermatzerik, esaterako, aurten ia-ia bizi izan duguna bezalako lehorte-sasoietan.

B.- Arrastariako hornidura bermatzeko egin behar diren lanak egitea. Horrela ez dugu alerta gorriko egoerako neurrietara jo behar izango, aurten gertatu den bezala. Lotura egin behar da Urduñako urmaelarekin (proiektua idatzita dago, finantzazioaren zain).

C.- Berritzea Angostinako presa Artziniegara bideratzeko ubide zaharkitua.

D.- Konponbidea ematea Aiara Goieneko Administrazio Batzaren hornidurari. Izan ere, bertan ez dute legezko ur-emakidarik, eta euren hornidura-sarearen jabea Arabako Foru Aldundia da.

2.- Aiarako Udalak premiaz eskatzen dio Arabako Foru Aldundiari parte har dezala laster sortuko den koordinazio-mahaian. Mahaia sortu dute Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoaren Gobernu Batzordeak eta Nerbioi Goieneko Saneamendu Proiektuak eragiten dien administrazio eskudunek, proiektua sustatzeko ados jarrita.

3.- Aiarako Udalak premiaz eskatzen dio Arabako Foru Aldundiari zuzenean inplika dadila Markixanako eta Laudioko EDARen proiektuetako lursailak lortzeko prozesuan, ikusirik zer nolako premia duen proiektuak abiarazteak.

4.- Aiarako Udalak premiaz eskatzen dio Arabako Foru Aldundiari has ditzala Aiarako saneamenduaren bigarren fasean jasotako lanak, Markixanako EDARarekin konexioa egitekoak. Beste horrenbeste egin behar da Arrastarian.

5.- Aiarako Udalak premiaz eskatzen die Arabako Foru Aldundiari eta URARI, Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoarekin lankidetzan, akordio bat sina dezatela, Aiarako udalerriaren saneamendu-sarea planifikatzeko. Plana landu egin behar da Udalarekin eta administrazio-batzekin: egoeraren diagnosis egin behar da, bai eta gutxienekoak lortzeko egutegia ezarri ere, segurtasun juridikoa eskaintzeko eta, epe laburrean eta ertainean, arazoizko konponbide tekniko eta ekonomiko arazoizko bat bermatzeko.

6.- Aiarako Udalak premiaz eskatzen dio Arabako Foru Aldundiari konponbidea eman diezaiola Artziniegako saneamenduaren arazoari".

José Antonio jaunak (EAJ) galdetu du zeri egiten ote dion erreferentzia bigarren faseaz ari denean.

Josu jaunak (BILDU) erantzun du definitu gabe dagoela bigarren faseak zeri egiten dion erreferentzia. Esan du berak nahiago lukeela guztiari heltzea lehenbiziko fasean, inolako saneamendurik utzi gabe bigarren fase baterako.

Jose Antonio jaunak (EAJ) esan du presioa egin behar dela, guztia lehenbiziko fasean egin dadin.

Iruzkinekin jarraitu aurretik, premiazko bozketa egiteari ekin zaio, aztergaien zerrendatik kanpoko puntua gehitzeko. Hau izan da bozketaren emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 4 BILDU.

AURKAKO BOTOAK: 7 (4 EAJ, 2 AB, 1 PP).

Iratxe andreak (AB) esan du bere taldeak aurka bozkatu duela; izan ere, premiazko gaia dela uste duten arren, bilkura honetan ez erabakitzeke behar besteko garrantzia du. Mozioaren edukia sakonago aztertu behar da, eztabaidatu ahal izateko.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du bere taldeak ere aurka bozkatu duela, gaia batzorde batean eztabaidatu behar delako.

Beraz, ez da onartu gaia aztertzeke premia, eta puntua ez da osoko bilkuraren aztergaien zerrendan sartu.

6.- Alkatetza-dekretuak:

- **Erref.- 477/14.- JAVS.-** Jakinaraztea indargabetu egin dela 2013ko apirilaren 8ko 155/13 Alkatetza Dekretua eta eskatzea 1.500 €-ko isuna ordaintzeko, Administrazioarekiko Auzietarako Gasteizko 2. Epaitegiak emandako 174/2014 zenbakiko epaian ezarritakoarekin bat eginez.
- **Erref.- 478/14.- Onestea F/2014/11 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 479/14.- Los Arcos de Quejana, SL.-** Dokumentu gehiago aurkezteko eskatzea, Los Arcos de Quejanako Plan Berezia onesteko espedienteari buruz.
- **Erref.- 480/14.- Menoioko Administrazio Batza.-** 2012ko argiteria publikoaren gastua finantzatzeko % 50eko diru-laguntza ematea.
- **Erref.- 481/14.- JMSI.-** Dokumentu gehiago aurkezteko eskatzea, Tuba de Llanteno Plan Berezia onesteko espedienteari buruz.
- **Erref.- 482/14.-** Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza. Udalak ordaindutako faktura ordaintzeko eskatzeko. (Amvisa).
- **Erref.- 483/14.- Aiara Bolatoki Taldea.-** 2014. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 60) egitea.
- **Erref.- 484/14.- Aiara Biltoki Kultura Elkarte.-** 2014. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 60) egitea.
- **Erref.- 485/14.- Etxaurren Ikastola IGE.-** 2014. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 60) egitea.
- **Erref.- 486/14.- Escuela Artística de Llanteno kultur elkarte.-** 2014. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 60) egitea.
- **Erref.- 487/14.- Escuela Artística de Menoio kultur elkarte.-** 2014. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 60) egitea.
- **Erref.- 487/14.- Ama Birjina Zuria emakumeen elkarte.-** 2014. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 60) egitea.
- **Erref.- 489/14.- Gure Andere elkarte.-** 2014. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 60) egitea.
- **Erref.- 490/14.- Santiago Apostol erretiratuen elkarte.-** 2014. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 60) egitea.

- **Erref.- 491/14.- Luiaondoko bolatokia.-** 2014. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 60) egitea.
- **Erref.- 492/14.- Dorreko Esku Pilota taldea.-** 2014. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 60) egitea.
- **Erref.- 493/14.- Eskutsiko Ahotsak.-** 2014. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 60) egitea.
- **Erref.- 494/14.- Ibaizabal Gaztetxea elkarte.-** 2014. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 60) egitea.
- **Erref.- 495/14.- Izalde Abesbatza.-** 2014. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 60) egitea.
- **Erref.- 496/14.- Murgako Administrazio Batza.-** 2014. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 60) egitea.
- **Erref.- 497/14.- Menagaraiko Emakume Taldea.-** 2014. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 60) egitea.
- **Erref.- 498/14.- Aiarako Txirrindularitza Elkarte.-** 2014. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 60) egitea.
- **Erref.- 499/14.-** Obrarako kontratu txikia esleitzea Electricidad Albizua, SLri, Murgako industrialdeko farola bat konpontzeko edo ordezkatzeko.
- **Erref.- 500/14.-** Onestea administrazio-laguntzaileen lan-poltsa sortzeko probetan onartutakoen behin betiko zerrenda, eta lehenengo ariketa deitzea.
- **Erref.- 501/14.-** Onestea zerbitzuetako langileen lan-poltsa sortzeko probetan onartutakoen behin betiko zerrenda, eta lehenengo ariketa deitzea.
- **Erref.- 502/14.- Retes de Llanteno Administrazio Batza.-** Itzultzea putzu septikoa ordezkatzeko lanaren hondakinak kudeatzeagatik aurkeztutako bermea.
- **Erref.- 503/14.- Udalerriko administrazio-batzak.-** Diru-laguntza, erantzukizun zibileko aseguruaren gastua finantzatzeko.
- **Erref.- 504/14.- MTSG.-** Itzultzea Llanteno etxebizitza baten estalkia eta fatxada zaharberritzeko lanen hondakinak kudeatzeagatik aurkeztutako bermea.
- **Erref.- 505/14.- APS.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Llanteno lursailak abereentzako sarearekin ixteko.
- **Erref.- 506.- JAUG.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Zuhatzako etxebizitza baten kanpoko arotzeria aldatzeko.
- **Erref.: 507.- MDMY-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Zuhatzako etxebizitza baten komuna eta sarrerako eskailerak eraberritzeko.
- **Erref.- 169/13.- Fundación Benéfica Alday.-** Dokumentazio gehiago aurkeztea, Udalaren arau subsidiarioen 5. aldaketa puntualaren espedienteari buruz.
- **Erref.- 509.-** Alkatetza Dekretua, Hnas. I.V., SCren izenean dagoen jarduera-espedientea izapidetzen jarraitzearen aldekoa.
- **Erref.- 510.-** Onestea Luiaondoko erabilera anitzeko erakina zaharberritzeko obraren segurtasun- eta osasun-plana.
- **Erref.- 511.- Lexartzu Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Lexartzuko ur-deposituaren teilatua konpontzeko.
- **Erref.- 512.- Opellorako Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Gizarte Zentrora doan bidea konpontzeko.
- **Erref.- 513.- Añesko Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Añesko beheko auzoko bidea konpontzeko.
- **Erref.- 514.- Maroñoko Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Maroñoko Kontzeju Etxea dagoen eraikinaren teilatua konpontzeko.
- **Erref.- 515.- Izoriako Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Izoriako haurren parkean itxidura egiteko.

- **Erref.- 516.- Murgako Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, uhinbiko bikoitzeko babes-hesia jartzeko elizarako bidean.
- **Erref.- 517.- Sojoko Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Sojon “Kiosko” deitutako eraikuntzaren estalkian erreteila egiteko.
- **Erref.- 518.- Menoioko Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Menoioko hilerrian kontserbatze-lanak egiteko.
- **Erref.- 519.- Quejana/Kexaako Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Quejana/Kexaako hilerrian kontserbatze-lanak egiteko.
- **Erref.- 520.- Retes de Llantenoko Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Llantenoko zenbait bide konpontzeko.
- **Erref.- 521.- Izoriako Administrazio Batzarra.-** Dokumentazio gehiago aurkezteko eskatzea.
- **Erref.- 522.- Diru-laguntza ematea Araba Euskaraz 2014ri.**
- **Erref.- 523.- Diru-laguntza ematea, Herri Urrats 2014ri.**
- **Erref.- 524.- Diru-laguntza ematea Nafarroa Oinez 2014ri.**
- **Erref.- 525/12.-EHIGE.- Diru-laguntza ematea, Euskal Eskola Publikoaren Jaialdia (2014) antolatzeko.**
- **Erref.- 526.- LAGUNKETA, SA.-** Itzultzea Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina eraberritzeko obra lizitatzeko aurkeztutako bermea.
- **Erref.- 527.- GESALTZA CONSTRUCCIONES, SL.-** Itzultzea Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina eraberritzeko obra lizitatzeko aurkeztutako bermea.
- **Erref.- 528.- LURGOIEN, SA.-** Itzultzea Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina eraberritzeko obra lizitatzeko aurkeztutako bermea.
- **Erref.- 529.- MLAUS.-** Itzultzea ordaindutako Ibilgailuen gaineko Udal Zergaren (2014) zati proportzionala, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.- 530.- JFAC.-** Itzultzea ordaindutako ibilgailuen gaineko Udal Zergaren (2014) zati proportzionala, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.- 531.- Añesko Administrazio Batza.-** Bermea eskatzea, bermatzeko Añesko ur edangarriaren banaketa-sarea hobetzeko obrako eraikuntza- eta eraiste-hondakinak egoki kudeatzen direla.

Ez denez horren inguruan ezer esan, Udalbatza Osoa alkatetza-dekretuen jakitun da.

7.- Norberak lekarkeena.

- Iratxe andreak (AB) hau esan du, isurtzeak baimentzeagatiko kanona dela eta:

“Funtsezko gaia da, Aiararentzat garrantzi handia duena. Baina, gaiari ekitean, gainerako talde politikoek laguntzarik gabe jardun du gobernu-taldeak: gainerako taldeek ezagutu ere ez dituzte egin udalaren mugimenduak. Are gehiago, zuzenean ukitutako administrazio-batzei ez zaie ezer esan.

Azal ditzagun aurrekariak, bilkura honetara bertaratu direnen jakingarri: aurreko urteetan bezala, isurtzeak baimentzeagatiko kanonaren zenbatekoa bidali dio URAk Aiarako Udalari, azken horrek kanona ordain dezan. Udalak ordaintzen du kanona; izan ere, Udala da udalerrri osoari dagokion isurtze-baimenaren titularra.

Ezer baino lehen, esan bedi Aiara Batuz taldeak uste duela egoera hori ez dela zuzena. Aiara Batuz taldearen ustez, arautu egin beharko lirateke isurtze-baimenak, eta administrazio-batzek izan behar lukete isurtze-baimenaren titular, instalazioen titular ere badiren aldetik eta saneamendu-sareen eskumendun eta erantzule ere badiren aldetik. Hala ere, araubidea izapidetzeko, administrazio-batzekin egin behar da hitzarmena. Ezer baino lehen, sareen egoera

zein den jakin behar da, baita egin beharreko lanak zein diren ere, ditugun sareak gaur egungo isurtze-parametroetara egokitzeko.

Ez da zuzena gobernu-taldeak URari idazki bat bidali izana ordaindu beharreko kanonari buruz. Idazki horretan esaten denez, Udalak ez du gaiaren inguruko eskumenik, eta dagokien administrazio-batzen izenean izapidetu behar dira isurtze-baimenak.

Ba al daki Bilduk hori eskatzeak zer eragiten duen? Lehenbizi, administrazio-batza bakoitzak eskatu behar du isurtze-baimena. Horretarako, saneamendu-sareen egoeraren azterketa egin behar da: hobetu beharrekoak eta kostuak jaso behar dira. Azterketa egin ondoren, sareak egokitu behar dira, gaur egungo isurtze-parametroak betetzeko.

Badakigu zein diren kostuak? Administrazio-batzek euren gain har ditzakete kostuok? Partzuergoak bere gain har dezake bere mendeko batzen sareak egokitzeko lanen kostuak? Gure ustez, erantzun gabeko kontu asko dago. Edonola ere, erantzunak izanez gero, jakin egin nahi genituzke.

Dena den, gainerakoei kontsultarik egin gabe hartu du erabakia gobernu-taldeak. Gure ustez, erabaki hori garrantzi handikoa da Aiarako herritarrentzat. Ez dugu halakorik gertatzerik nahi, baina gisa honetako esperientziak ere gertatu izan dira: Aiarako administrazio-batzek nahitaezko lanak egiteko likidezia nahikorik izan ez dutenean, herritarrek eurek jarri dute dirua, derrama gisa, egin beharrekoetarako.

Gaia bestela konpon zitekeen: administrazio-batzen planteamendu bateratu batekin, esaterako, lehenbizi honako hauek aztertuta: egoera bera, aukerak, sareak arautzeko administrazio-batzek eska zitzaizketen diru-laguntzak...

Egoeraren oinarria ez da, inola ere, administrazio-batzek euren betebeharrak alde batera utzi dituztela; izan ere, guztiek egokitu izan dituzte saneamendu-sareak unean uneko araudietara eta unean-unean indarrean egon diren isurtze-parametroetara.

Orain, baina, sare horiek ez dira nahikoa egungo isurtze-parametroetara egokitzeko. Kasu askotan halaxe da, ez dira nahikoa. Araudia aldatu egin da eta egokitu egin behar dira. Edonola ere, ez dugu uste konponbidea URari idazki bat bidaltzea denik, besteoi ezer esan gabe. Gorpil bat martxan jarri dute, ikusteko dago noraino iristen den.

Hori guztia gutxi balitz bezala, joan den astean Hirigintza Batzordeko buruak honako hau esan zien batzorde horretako kideei: abenduaren 22an bilera bat egitekoak zirela URarekin, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarekin, Aiarako Ur Partzuergoarekin eta Aiarako alkatetzarekin, Aiarako saneamendu-sareari buruzkoak aztertzeko. Bada, isurtze-parametroak betetzeari buruz alkate jaunak deskribatu zuen egoeraren larritasuna ikusita, eta URari bidalitako idazkiaren garrantzia ikusita, honako hau eskatu genuen: utz ziezagutela gainerako talde politikoei aipatu bilera horretan parte hartzen. UKATU egin zitzaigun aukera hori. Bilera beste maila batekoa zela esan ziguten, eta emango zitzaigula bertan gertatutakoen berri. Beste maila batekoa? Orain mailak al daude? Eta gainerakoak ez al gaude maila horretan?

Gure ustez, gobernu-taldeak bere kontura jokatu du garrantzi handiko kontu honetan. Aiara Batuz taldeak zuzenean jakin nahi ditu dagokigun gai honen ingurukoak, eta bilera horretan parte hartu gura du.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du idazki horren asmoa zela Udalaren interesak, eta, era berean, administrazio-batzenak, defendatzea, gainerakoek kontrakoa ikusarazi nahi duten arren. Aurreko 16 urteetako legez kontrako egoera irregularraren aurka joatea, horixe da egin dutena.

URaren azken idazkiek Udala egiten dute erantzule, isurtze-baimenen kudeatzaile den aldetik. Baina udalak ez du eskumenik arlo horretan.

Isurtze-kanonaren aurkako alegazioarekin, ondorio konplexuak izan ditzaken prozesu bat hasi da. Egoera irregularrean jarrai daiteke beste hamasei urtean edo arazoari irtenbidea bila dakioko, konplexua izan arren.

Iratxe andreak (AB) esan du hamasei urtean egoera horretan egon badira, eta horietako hiru legegintzaldi honetan, badagoela kanona beste urte batez ordaintzerik, eta gaia denon artean aztertzerik, denon artean irtenbideren bat topatu ahal izateko.

Josu jaunak dio egoera erregularizatzen saiatzen ari direla.

Iratxe andreak dio URARI idazki bat bidali zaiola, eskatzeko administrazio-batzei erregulariza ditzatela isurtze-baimenak, eta taldeekin kontsultatu eta eztabaidatu gabe egin dela hori. Gobernu-taldeak erabaki du, berak beretara.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du gai hori denen artean erabaki beharrekoa zela, eta zinegotzi guztien iritzikoa izan behar zuela.

Josu jaunak erantzun du prozesuaren hasiera besterik ez dela izan, URAREkin bilera bat izatea azkartzeko. Izan ere, kanona berresteko eskatzen zen. Bide horretatik ez jarraitzea eta arazoa konpontzea erabaki zen.

Garbiñe andreak esan du **Akoako Uzkiaren** mezu elektronikoa bat jaso duela, arauen aldaketari buruzkoa. Galdetu dit kontseiluari informazioa eman ote zaion, Retes de Llanteno sei etxebizitza proposatzen direlako. Kontseiluak ez du aldaketen berri izan. Ez dakigu saneamendu-sarea nahikoa ote den hazte hori baimentzeko.

Josu jaunak (BILDU) esan du azken proiektua, Udalaren behin-behineko onespina duena, baztertu egin dela Aldundiaren Hirigintza Batzordetik. Hala egiteko gomendatu zuten Hirigintza Saileko teknikariek; izan ere, onartutako konponbideen arrazoitze egokia falta zen. Itzuli egin behar izan zitzaion Arkigest-i, arrazoiak zuzen eman zitzaion, Aldundiko teknikariek esandakoaren arabera.

Idazkariak azaldu du azken proiektu horretan aldatu direnetatik bat bera ez dela oinarritzakoa. Udalbatzak onartutakoa baino ez dago proiektuan. Esan du, halaber, behin-behineko testua onartu zenean talde politiko guztiek zutela informazioa. Testuan oinarritzako aldaketaren bat lekarkeen zuzenketarik egin izan balitz, Udalbatza Osoak berriz onartu beharko zukeen. Korporazioak onartutako konponbideen arrazoitzeak baino ez dira gehitu.

Josu jaunak (BILDU) esan du Aldundiaren Hirigintza Batzorde horretan **Uzkirekin** hitz egin zela, eta azaldu egin zitzaizela nola gertatu den arau-aldaketen espedienteak. Bai aldaketa honetan, bai gainerakoetan, saneamenduari duden arazoak zein diren ikusten ari dira. Harrigarriena da URAREN iritziz, Udalari dagokiola erantzukizuna, baina Udalak ez duela gaiaren gaineko eskumenik.

Josu jaunak (BILDU) jarraitu du: duela hamasei urte, ez dakigu zer dela eta, Udalari isurtze-baimen bat eman zitzaion. Baimena behin-behinekoa zen, hogei hilabeterako. Horren ordez, baimen bana eman behar izan zitzaion administrazio-batzei. Asmo bakarra da egoera hori erregularizatzea.

Iratxe andreak (AB) esan du pauso hori emateko saiakera egin zela Ainhoa alkate zela, eta URAKO J. E.-ekin bilera bat egin zutela. Administrazio-batzei gutuna bidali zitzaion, bakoitzak bere isurtze-baimena kudeatzeko ardura har zezan. Kexa asko egon ziren, eta azkenean, zegoen-zegoenean utzi zen kontua.

Iratxe andreak jarraitu du: URARI alegazioa bidali ostean, ikustear dago ondorioak zein izango diren; ikustear dago, halaber, nola jardungo duen URAK gaiari dagokionez.

Josu jaunak (BILDU) esan du guztiak duela alde aurretik URAREkin egindako bilkuren bermea. Talde guztiek dute horren berri.

Iratxe andreak esan du ez dela informazioa izatea soilik. Gainerako taldeek ere erabaki behar dute, alegazioen idazki hori gobernu-taldeak bakarrik egin duelako.

Josu jaunak adierazi du arazoa ez dela ordainketa. Hori guztia egin da, fokua konpondu beharreko arazo batean jartzeko.

Iratxe andreak erantzun du arazo hori konpontzeko, lehenengo administrazio-batzekin egin behar zela bilkura, eta gero hartu behar zirela erabakiak.

Josu jaunak esan du idazki horren asmo bakarra zela URA jesarraraztea, bilkura batean, gaia aztertzeko.

Iratxe andreak Josu jaunari galdetu dio ea batzar horretara joan daitezkeen.

Josu jaunak erantzun du URARI galdetu beharko zaiola.

José Antonio jaunak (EAJ) esan du Udalak iritzi bateratu batekin joan behar duela bilkura horietara, ez Bilduren iritziarekin edo erabakiarekin. Gobernu-taldeak hartutako erabaki hori ez da inolako batzordetan eztabaidatu eta hartu.

Josu jaunak erantzun du gobernu-taldeak ere baduela Udalaren legitimitatea eta ordezkagarritasuna.

Iratxe andreak esan du erabaki guztiak hartu behar direla hamaika zinegotzien artean.

Josu jaunak esan du zerbait erabaki behar denean, eztabaidatu egingo dela, eta erabakia zinegotzi guztiek hartuko dutela. Hitz egiten jarraitu eta esan du batzek arazoak dituztela saneamenduarekin. URARI txosten bat eskatzen zaion bakoitzean, pilota beste bati botatzen diote, esanez Udala dela erakunde kudeatzailea: arazoa Udalari uzten diote.

Garbiñe andreak (EAJ) eskatu du hurrengo osoko bilkurarako txosten juridiko bat egiteko, isurtzea baimendu duten kudeatzaileen erantzukizunaz. Esan du saneamendu-arazoa administrazio-batzek dutela, ez daukatela dirurik azpiegiturei heltzeko.

- Iratxe andreak (AB) idazki hau irakurri du, arau subsidiarioen 5. aldaketa dela eta:

“Gai honi dagokionez, agertu beharrekoa da Aiararentzat proiektu oso garrantzitsua dela, eta ezin dela proiektua gelditu, hain zuzen ere, gelditzen ari diren arrazoiengatik.

Gaur, proiektua gelditzeko darabilten arrazoi bakarra ez datza idatzizko txosten batean, baizik eta gobernu-taldearen baieztapenetan. Honetaz hari da: egoitza berriak isurtze-kopurua haztea dakar. Kontua da saneamendu-sareek aurre egingo ote dioten. Isurtzea areagotu egingo da: 20 ohe gehiago izango dira, eta hori etxebizitzatan emanda, bost lirateke. Bost etxebizitza gehiago.

Eta hori guztia URAREN txosten bat ez, baina bi egonda. Horietan esaten da sareek hazkuntza hori jasan dezaketela, oso txikia delako. Gainera, ingeniari independente baten beste txosten bat dago, eta bertan ere lekukotzen da sare horiek hazkunde hori jasateko gai direla.

Egoera hau guztia gertatu da, egoitza berri hori lurzoru urbanizaezinean dagoelako; izan ere, egoitza berri honen ordeztasun (20 ohe ditu, dagoenaz gain), 1. sektorea garatzeko lizentzia eskatzen da: hementxe bertan dago. Bertan, adibide bat jartzeko, 40 edo 50 etxebizitza sartzen dira (200 bat pertsona, saneamendu-sarera isurtzen). Bada, baimendu egin beharko litzateke, hiri-lurzorua delako.

Honek zentzua du? Aiara Batuz taldearen ustez, batere ez. Txostenak emateko eskumena duen administrazioaren aldeko txostenak daude, egoitza berri bat beharrezkoa da, egungoa zaharkituta gelditzen ari delako... Aiara ezin du aukera hau galdu, ezin dugu Aiara baliabide hau galdu, ezin gara egoitzarik gabe gelditu: fundazioaren lanagatik ez balitz izango, ez litzateke errealitatea izango Aiara.

Aiara Batuz taldeko kideek uste dugu gaur egun ez dagoela inolako lege eragozpenik, proiektu hau errealitate bihurtzea eragozteko. Proiektuak mugimendua ekarriko du gure udalerrira,

lanpostu gehiago sortuko ditu eta Arespalditzan pertsonen joan-etorria eragingo du, horrek guztiak eragiten duen ekonomiarekin. Gainera, gure nagusiak zaintzeko beharra erraztuko du.

Gai hau desblokeatzeko eskatzen dugu, arau subsidiarioen aldaketa hau behin-behinean onesteko aurkez dadila, eta erraztea Aiaran hainbesteko garrantzia duen proiektu honek argia ikustea.

Iratxe andreak esan du ez dela lege-oztoporik ikusten proiektu hori gelditzeko; beraz, behin-behinean onesteko aurkezteko eskatu du.

Josu jaunak (BILDU) galdetu du ea txostena irakurri duten. Esan du aurreko egunean putzuan egon zela Juan Carlosekin eta Ivánekin. Bada, begi-bistan nahiko argi gelditu zen putzua ez dela gai beste ezer hartzeko. Orain dagoenerako nahiko ere ez da.

Josu jaunak hitz egiten jarraitu du. Esan du honetan guztian harrigarriena dela URAk txosten horiek ematea, proiektuaren CDaren edukia egiaztatu ere egin gabe. Erantzukizuna Udalari egozten dio, organo kudeatzailea delako, esanez putzuak oso ahalmen txikia duela. URAko teknikariak berak batzar batean aitortu du txostena egiteko erabilitako datuak telefonoz emandakoak izan direla, Udalak formatu digitalean igorritako proiektua kontsultatu gabe. Azken txosten horretan, gainera, Udala egiten da erantzule, isurtzeko baimenaren titularra delako. Udal-arkitektoak hala aholkatuta, gaia hobeto aztertzea eta isurtzearen kontua nola konpondu erabakitzea ebatzi da, arauak aldatzeko espedientea izapidetzen jarraitu baino lehen.

Baina, argi gera dadila: eurak ez daude proiektuaren eta aldaketaren aurka, baina horrela ez dago aurrera egiterik.

José Antonio jaunak (EAJ) esan du sustatzaile batek eraikuntza-lanak egin nahi dituela partzelan, eta horrek eragina duela saneamendu-sarean. Hirigintza-eskumena udalarena da, baina saneamenduaren eskumena administrazio-batzari dagokio; beraz, Arespalditzako Administrazio Batza lau alderdiko batzar baten zain dago: Batza, Udala, Alday fundazioa eta Kantauriko Urkidetza. Baina, ulertzen du Batzak ez duela deitzeko eskumenik. Beraz, alderdi bakoitzaren ekarpena zein den ikusteko zain daude, arazo honi irtenbide bat eman ahal izateko.

Iratxe andreak (AB) esan du horretaz ari dela, hain zuzen ere: irtenbide onena bilatu behar dela, eta aurrera egin izapidetzekin. Beraz, Udalari eskatu dio behar denari deitzeko, baina saneamendurako irtenbidea bilatzeko.

José Antonio jaunak (EAJ) esan du, Arespalditzako Administrazio Batzari dagokionez, bere ustez, batzar bat egin behar dela parte hartzen duten guztiekin, ados jartzeko eta arazoa konpontzeko.

- Iratxe andreak (AB) hau esan du, Gorobel mendilerroko itxidurei buruzko idazkiaren beharraz:

“Aiarra Batuz taldeak eskatzen du osoko bilkura honetan onesteko eskaera gauzatzeko erabakia; zehazki, Ekain aholkularitzari eskatu behar zaio, behar den guztia izapidetzen hasteko, Burgosek mendilerroan jarritako itxidurei dagokienez. Izan ere, Aiara Ermandadeak egun dituen bazka-eskubideei eragiten zaie. Ekain aholkularitzak esan zuen bezala, ezin da utzi urtebetetik gora igarotzea, itxidurak jartzen direnetik. Halaber, egungo eskubideak mantentzeko izapidetza abenduan egin behar dira (2013ko abenduan egin zen itxidura eta aholkularitzak denbora behar du, gaia aztertzeko eta behar bezala prestatzeko).

Gainerako talde politikoen gai honi buruz duten iritzia ematea gustatuko litzaiguke, eta Udalaren proposamena ezagutu, gerora Ermandadean proposatzeko.”

- Iratxe andreak (AB) hau esan du, aurkeztutako idazkiak eta udalerriko kultur ekimenak babesteaz:

“Kontu hau ere azpimarratu nahi dugu 2014ko azken osoko bilkura honetan. Administrazio-batzek, elkarteek eta partikularrek idazkiak aurkeztu dituzte Udalean, hainbat kontu eskatzeko. Alabaina, ez dute erantzunik jaso.

Uste dugu Udalean idazkiren bat aurkezten duten guztiek merezi dutela erantzutea, horretarako hartzen dutelako euren zalantza, kexa, eskaera eta abar idatziz aurkezteko lana: erantzuna ere era berean jasotzeko.

Idazki horietan adierazten da talde politiko guztiak direla hartzaileak. Hori nabarmendu behar da. Bada, idazki horiek talde egokiei helarazi behar zaizkie; esate baterako, batzordeen bilkuretan.

Beste alde batetik, ematen du gobernu-taldeak ez dituela baloratzten elkarte edo partikularren ekimenak, gure ondarearen inguruko kultura- edo dibulgazio-kontuetan. Adibide bat: udalerrri honetako bizilagun batek diru-laguntza eskatu zuen, Udalak ahal zuen heinean, Aiarako haginari buruz egindako azterlana diruz laguntzeko; zehazki, Aiaran hain errotuta dagoen zuhaitz horren inguruko jardunaldia eta/edo lan horretatik eratorritako argitalpena diruz laguntzeko.

Zer erantzun du Udalak? Isiltasuna? Ezer ez. Iruditzen zaigu tristea dela gure erakundeak lan hori ez babestea: hala islatzen da jardunaldiaren kartelean. Aiarako bizilagun askok irabazi-asmorik gabe eman dute euren laguntza proiektu horretan, euren lanarekin, Aiarako kulturaren eta sustraien alde egiten dena baloratzten dutelako; alabaina, Udalak ez du tartetxo bat ere aurkitu, diru-laguntza eskatzeko idazki horri erantzuteko. Eta ematen du gainerako taldeei ekimen horren eta eskaeraren berri emateko tarterik ere ez duela izan. Adibide bat besterik ez da. Adibide bat besterik ez da, baina nahiko grafikoa da. Gehiago ere badaude, baina kontua ez da inor aspertzea. (Salvago eta artzaintza-liburuaren edizioa; hori aurkezteko hitzaldia udalerrri mugakide guztietan; Llantenoko Eskolen Elkarteak idazki bat aurkeztu du, talde politiko guztiei zuzenduta, baina ez dugu ikusi. Abenduaren amaieran eskatu zuten jakin ahal izatea 2014an elkarteentzako diru-laguntza jasoko zuten, eta azaldu zuten urte horretan ere elkartekideek aurreratu behar zutela jardueretarako dirua; Luiaondoko Administrazio Batza eta beste batzuk ere zain daude, noiz jasoko Udalari aurkeztutako idazkiak; eta abar).

Bene-benetan eskatzen dugu Aiarako hainbat bizilagunek herriko kultura-bizitza mantentzeko egiten duten lana baloratzeko. Irabazi-asmorik gabe dihardute. Bada, mimatu egin behar da hainbat urtez horretan lanean aritu dena, hasten dena, proiektuak abiarazi nahi dituen... Aiararen etorkizuna, neurri handi batean, bizilagunen irabazi-asmorik ezaren mende dago. Hori izan da udalerrriaren identitate-ezaugarrietako bat: herritarrek eurek bultzatutako kultura-bizitza zabala”.

Josu jaunak (BILDU) erantzun du haginaren libururako eskaera aztertu zela jada. Idazkariarekin aztertu zen egiteko aukera, baina ez zegoen aurrekontu-partidarik.

Hogeiak eta hogeita hamar minutu direnean, Iratxe andreak (AB) bilkura utzi du.

Iraida andreak (AN) esan du aurrekontu-partidarik ez badago, aldaketa bat egin daitekeela aurrekontuan, partida bat sor daitekeela eta lankidetzeta-hitzarmen bat onets daitekeela.

Aitziber andreak (BILDU) esan du eskaera horri telefonoz erantzun zitzaiola. Esan zitzaion ea urtarrilerako eman zezaketen iritzia; izan ere, 2015erako asmoa da diru-laguntzen oinarrietan sartzea halako ekimenetarako diru-laguntza emateko aukera. Aitziber andreak esan du ezinezkoa izan zela, data finkatuta zutelako.

- Garbiñe andreak (EAJ) berriz ere eskatu du udal-arkitekto teknikoaren txostenaren kopia; zehazki, alkateak abuztuan Etxegoieneko putzuaren obrari berrekiteko erabakia hartzeko oinarri gisa erabili zuenarena.

Josu jaunak (BILDU) erantzun du batzar bat egin daitekeela teknikariarekin, gaiaz duen iritzia eman dezan.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du zortziak eta berrogei minutu zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Aiaran, bi mila eta hamalauko abenduaren hamazortzian.

OE
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA

Izpta.: Josu Artetxe Arana

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.